

## [Eusk/Cast] ¡No obedezcas! Acabemos con la heteronorma por medio del placer

---

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA :: 23/06/2015

28J: Cada vez somos más las que hemos decidido no obedecer y hacer que mediante el placer la heteronorma sea despedazada, quebrada, arrasada.

### **EZ OBEDITU! HETEROARAU PLAZEREZ LEHERTU!**

Obedientzia izan dugu gure heziketaren oinarri, baina ez obeditzen ere ikasi dugu. Emakumeen sexualitatearen eta gorputzen kontrola ezarri digute: monogamia, familia eredu patriarkalak, estigma, maitasun erromantikoa... etab. bitartez. Hau guztia hornitzeko familia eredu patriarkala eta maitasun erromantikoaren ideiak gure gorputzetan ezarriko dituzte, arauak askotan bertan izkiriaturik geratuko dira naturalak direnaren aitzakiarekin. Beraz, heteroarauan oinarritutako sistema patriarkaletik eratorriko den eredu sexualaren ezaugarriak hauek dira: sexu bipolarren gainean eraikia, heterosexuala, genitala eta maskulinitatearen plazerera bideratutakoa. Hortaz, gero eta gehiago gara ez obeditu eta heteroaraua plazeraz lehertzeko hautua egiten dugunak: guraso bakarrak, lesbianak, bi guraso baino gehiagoko haurrak, harreman poligamiakoak dituztenak, ama izatea erabakitzen dugun bikote lesbianak, sexu langile transexuala, praktika sexual koitalak lehentasunezkoak ez ditugunak, praktika sexualen kategorizazioari ihes egiteko hautua egiten dugunak, lagun taldeak e.a. guztiok, patriarkatuaren oinarria den familia nuklearraren nagusitasuna eta gailentzen den harreman eredu ezbaian jartzen dugun desobedienteak.

Ez obedientziaren aurrean, erasoak leku desberdinetatik igortzen zaizkigu: azken aldian Euskal Herrian gertaturiko kaleko eraso homofobo ugari salatu nahiko genituzke eta baita Espainiako Gobernu ultra eskuindarrak krisiaren aitzakiapean edo egindako erreforma eta bultzatutako neurriak ere. Artean, Familia Plana, zeinetan, gay, lesbiana eta etorkinen sendiak arazotsuen multzoan sartu dituen; osasungintzan transen sexu operazioetan emaniko murrizketak, lesbianeiei zuzendutako lagunduriko ugalketa teknologien zerbitzu publikoetan izandako murrizketak, hezkuntzan LOMCE legearen bitartez ematen ari den ideologizazio eskuindarra, balore diskriminatzaile eta erreakzionarioen sustapena, abortuaren lege organikoan eginiko aldaketa (16-17 urte bitarteko emakumeen gurasoen baimena behar izatea)... Guzti horrek, familia patriarkal nuklearraren indartzea, eta sexualitatea plazeraren kudeaketa gisa ulertu beharrean, erreprodukzioarako bitarteko gisa denaren ulermenean sakontzea ditu ondorio, besteak beste.

Hortaz, sexualitateari, plazerari, dimentsio politikoa emateko saiakera erabatekoa izan dadin segi behar dugu. Sexualitate eredu hegemonikoaren aurrean, arauen barnean sartzen ez ditugun praktikak iraultzarekin lotzen ditugu, horregatik gaude harro! Ez ditugulako praktika lesbianak arauaren barnean sartu nahi, araua bera deslegitimatu, praktika aniztasuna errealitatea bat dela ohartarazi eta denak erdigunean gaudela aldarrikatzen jarraituko dugu.

Geroz eta ozenagoa da arau nagusitik kanpo kokatzen garenon ahotsa, eremu anitzetan leherketak eragiten ditugunak: Monogamiari hordagoa bota eta ostantzeko praktika askeak garatzen dituzten norbanakoak ere geroz eta gehiago gara. Sexualitate hegemonikoaren edozein arau haustek, bidean aurrera jarraitzeko ezinbestekoak ditugu: patriarkatuak sortu dituen kategoria hertsia eta mugatuak gailendu, eta aniztasuna oinarri duen jendarte baten beharra geroz eta ageriagoa da. Zentzu honetan, jendarte feminista baten alde lanean jarraitzeko beharra ikusten dugu, eta honetan herritar orok badugu zer egina.

Beraz, ez dugu obedituko eta plazerez: muxu, begirada, koxka, masaje, mimo, laztan bakoitzean; lehertuko dugu heteroaraua. Ekainaren 28a borroka eguna dugu, beraz, egingo diren mobilizazio eta ekintzetan parte hartzeko deia zabaltzen dugu.

Euskal Herrian, 2015eko ekaina  
EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA

---

## **¡No obedezcas! Acabemos con la heteronorma por medio del placer**

A pesar de que la obediencia ha sido el cimiento (impuesto) de nuestra educación, formación; también hemos aprendido a no obedecer. A desobedecer. Nos han implantado el control sobre el cuerpo y la sexualidad de la mujer a través de modelos de familias patriarcales, el amor romántico, la monogamia, el estigma, etc. Para ello nos impondrán dos conceptos fundamentales anteriormente mencionados; el modelo patriarcal de familia junto con la falsa idea del amor romántico. Lo harán de tal manera que muchas de estas ideas quedarán interiorizadas en nosotras en relación con la excusa de ser algo natural. Teniendo en cuenta lo anterior, podemos definir las características sobre el modelo sexual basado en la heteronorma (que este sistema patriarcal crea y promueve), de esta manera: un modelo construido por la bipolaridad de los sexos, heterosexual y enfocada a los genitales y al placer del sexo masculino.

Es por ello que cada vez somos más las que hemos decidido no obedecer y hacer que mediante el placer la heteronorma sea despedazada, quebrada, arrasada. Somos nosotras; las madres (o padres) solteras, las lesbianas, las niñas con más de dos referencias maternas/paternas, las que tenemos relaciones polígamas, las trabajadoras sexuales transexuales, las que no tenemos las prácticas coitales como prioridad, las que optamos por evitar cualquier tipo de categorización sexual, las cuadrillas de amigas... Todas nosotras, somos las desobedientes que ponen en duda todos los modelos de relaciones expuestos por el sistema patriarcal actual. Somos quienes dudamos de la supremacía que el núcleo familiar ofertado supone.

Como consecuencia de nuestra desobediencia recibimos agresiones diversas y variadas por fuentes diferentes: Es por ello, que nos gustaría denunciar todas las agresiones homófobas recibidas a pie de calle en los últimos meses en Euskal Herria. De igual manera, queremos denunciar aquellas reformas y medidas llevadas a cabo por el Gobierno ultraderechista de España a costa de lo que le hacen llamar crisis.

Entre ellos hemos de mencionar el conocido Plan de Familia, en el cual las familias de gays,

lesbianas e inmigrantes son clasificadas como problemáticas. Además, tenemos otros muchos ejemplos más; en relación con la sanidad, tenemos los recortes para las operaciones de las transexuales o los aplicados a los servicios públicos de servicios de reproducción en ayuda a las lesbianas. En cuanto a educación, es de mencionar la ley LOMCE la cual suscita la ideologización derechista, valores discriminatorios y reaccionarios. Igualmente, tenemos los cambios realizados en la ley orgánica del aborto, en los cuales se exige el consentimiento/permiso de los padres y madres para aquellas jóvenes entre 16-17 años que quieran abortar. Y más recortes, y más medidas. Todo esto nos lleva al fortalecimiento de la familia patriarcal tradicional además de hacernos plantear nuestra sexualidad como medio de reproducción, entre otros, y no de placer.

Por lo tanto, debemos de seguir trabajando para que tanto el placer como la sexualidad consigan abarcar de manera que consigan una dimensión política. Es por ello que estamos orgullosas. Estamos orgullosas de hacer uso de prácticas no pertenecientes al modelo hegemónico.

Orgullosas de prácticas que relacionamos con la revolución. Porque no queremos clasificar las prácticas lesbianas dentro de sus normas y modelos, sino trabajar y organizarnos para deslegitimarlas. Hacer ver que la pluralidad de prácticas es una realidad y que todas como parte de ella que somos, reivindicar que nos situamos y estamos en el punto central.

Cada vez es más sonora y penetrante la voz de quienes nos situamos fuera de esa norma *normal* y creamos explosiones o terremotos en múltiples ámbitos. Cada vez somos más las personas que le echamos un órdago a la monogamia y damos paso al desarrollo de prácticas libertarias. Es necesario romper con cualquier norma de la sexualidad hegemónica para poder seguir dando pasos hacia delante: dominar y superar aquellas categorías limitadas y estrictamente cerradas para caminar hacia una sociedad en la que la pluralidad sea parte del cimiento o la base. En este sentido, cada vez está más claro la necesidad de ello, y es por eso que vemos la obligación y exigencia de seguir trabajando por una sociedad feminista, donde todas nosotras tenemos un quehacer.

Por lo que concluimos dejando claro que no obedeceremos, desobedeceremos.

Mediante el placer: besos, miradas, mordisqueos, masajes, mimos, caricias; mediante ellos despedazaremos y quebraremos la heteronorma.

El día 28 de Junio es día de lucha y reivindicación; por lo que hacemos un llamamiento a participar y difundir las movilizaciones y actividades previstas.

*En Euskal Herria, en Junio de 2015.*

**EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

---

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ino-obedezcas-acabemos>